

dorrejilko kanta

Patri Urkizu



Donostia, Kriselu 1977

Lehen partea: GARRASI ITOA

Bigarren partea: AMETSA

Hirugarren partea: KATE HERSTU HAUETARIK...

Lehen partea: GARRASI ITOA

Gizon anitz baita zuhur
gaurko mundu honetan,
horiei Dorrejilko kanta
kantatuko diet benetan.

Historia minbera bat
kantatutzera noa,
latinez eztakidanez
euskara hutsez doa.

Jende onak, hemen nator,
plazer baduzue entzun,
gure herri prolemetaz
arituko naiz egun.

Edo nahiago baduzu,
zure gisara jardun,
agur eta inoiz arte,
antojuz bizi edonun.

Marrantaz jota dadukat
odolez eztarria,
baina horregatik ez zait
lehortuko mihia.

Isilik daude aspaldi
poesia mailuak,
debekatu baitzituen
zentsura kontseiluak;

Baina hala guztiz ere
kilkirraren arabera
abesten dut eten gabe,
eten gabe nere era.

Edonorri ezpazaio
gustatzen ene kanta
bota dezala ozenki,
berea berehala;

Jakingo baitut nik ere
ihardesten nere era
mindurak eraginiko
garrasi hotz minbera.

Udaberriko loreak
hain baitira saildu,
ez dudala nik nahi
egiarik apaindu.

Izen iustu egokiak
gauza bakoitzarentzat.
Ene, bilaka balira,
beharrezko denentzat!

Egiak huts biluziak,
gustatzen zaizkit niri,
uhinen afarra bezala
hondarretan elur xuri.

Hilargiak iraganak
Gazteluko dorrean,
hango xoriak darاما
kantu hau aidean,

Hegoa dabilenean
aidez pinu tartetik,
Jaizkibelgo gailurrera
Allerruko kaskotik.

Mendez mende daramagu
bizitza miserabilia,
etxean falta baitugu
artoa eta garia.

Egunak pasatzen dira,
herriak dirau gosez,
noren kulpaz honela den,
esango diat legez.

Zelaia dago agorturik,
agorturik ibaia,
baina jauntxoek badute
asetzeko gaia.

Alibiyorikan gabe
pobre jaio ginenok
bizi gara arrastaka
deusere eztugunok.

Plazeraz eta fantasiz
aberatsak, ordea,
bizi dira gure kontu
bero boltsa barnea.

Jaunak omen agintzeko,
abeze higuigarria,
pobreak uztarperako
ez ote tamalgarria?,

Tamalgarría ez soilik,
hori da pairagaitza,
are okerrago dugu
gure batasun eza.

Adarrak salgai baitaude
errazki Mirabellesen,
faltrikan duenarentzat,
hamazazpi florinen.

Hango etxetan, ordea,
ez datza printzesarik,
geure alabak dituzte
saltzen xanponengatik.

Geure izerdien truke
eztugu atxeter onik,
eskaera bidezkoetan
ezta ere abokaturik.

Oinazez erditzen dute
geure andre maiteek,
oinazez beren sabelak
gorriturik odolek.

Gure aingeru zaindari
izan omen direla,
baina eztugu beharrik
maltzur horien bela.

Haur gizaxoak dabilta
larru hutsik kalean,
bere sabel ergelduak
asetu ezinean.

Karrika hits zikinetan
inoiz ezin aserik,
lore zimelak bezala
muki lohiz beterik,

Ogi puzka bategatik
putzu lerdan beltzetan
lohitzen zipliztinaka,
elkar joka, borroketan.

Pobreek hauxe nahi dugu
ogia denentzako,
eta ez gezur faltsokin,
bakarrik jaunentzako.

Bilaniazko traizioz,
ohostutzen digute,
guretzat gose besterik,
utzi nahi eztute.

Bigarren partea: AMETSA

Artsuko errota zahar
zaharrarren alboan
atsematen nengoela,
oroipenak etzanikan,

Nola amaitu urtea
zor handirikan gabe,
semeak osasun onez,
inoren ez mirabe,

Nagusiari ordainduz
maistertasunekoa,
eta dendari orori
zorretan utzitakoa...

Ametsetan hasi nintzen
amets sofrituetan,
ezinaren irudiaz
jantzitako oldozketan...

Hantuste, zarategile,
gatzeluko jaun artoa,
etorri zitzaidan, ustel,
bazirudin moroa.

Zakur tropa bat zeraman
zaunka bere alboan,
ez zuten gose handirik
ez haiek oihanean.

Irrifar krudel, ustelez,
jatsi gabe zalditik
agurtu zidan kondeak
zilar bizar tartetik.

-Nola abil nekazari?

Galdetu zidan kondeak.

-Triste nabil, jaun konde,

menpetuta nekeak.

-Nekazari oroit adi,
Nafarroan gari asko.
-Jaun konde, jaun konde,
deusik ez zuretako.

Eta erregea bera,
bere tropa eta guzti,
zergaren bila badator
erantzungo diot: aski!

Eztugu ordainduko
egungo egunetik
nagusien hainbat zerga,
inongo hamarrenik.

Estatu penagarrian
sofritzen bizi baikara,
eguzkia jalkiz gero,
zamarien gisara.

Herriarena soil baita,
bere izerdi odolez
lurrari kendu diona,
hainbeste izerdi nekez.

Jan edan nahi baduzu
dadila zure kontura,
eztezazula mespretsa
gure hainbat mindura.

Geure kontura eztute
ez konde, ez markesek
far eta jan egingo,
hitz demagu denek.

Haserre, oso haserre,
irten zen jaun kondea,
zirauak eta apoak
boteaz, miserablea!

Ez zen gelditu, noski,
bengantzarikan gabe,
zaldi krudelaren zangoz
burdin zigormirabe.

Mila urte igarota,
ura bere bidean,
gorriak eta xuriak
batu ziren pelean.

Zeruko burdin atea
gris zeuden egun hartan,
geure asturu txarrek
galdu ziguten bertan.

Lohiz jantzita zegoen
malerusko eztrata,
ez dut inoiz ahaztuko
belardien zarata.

Hamahiru mila zaldi
ziren alde batetik,
ehun gizon ausarta,
aldiz, beste partetik.

Non nahi bildur usai
somatzen baikenuen,
belaunak dardarka zeuden,
bihotza kolpeka zen.

Erromako zubiaren
koloretasun hitsak
itzaltzen hasiak ziren,
ene zer bihotz hotsak!

Zuhaitz adarretako
xoriak isildu ziren,
trumoiek eta ximistek
lurra zuten dardartzen.

Kanpandorrea oihuka
gelditu gabe zegoen,
eta haizearen txistuak
belarriak gorratzen.

Xokorrak akuilutan
xit urduri zebiltzen,
eta ardiak kortetan
eten gabe negartzen.

Itxasoko bateltxoak
uhinez kulunkatzen,
zurezko paba meheak
mendebalez zigortzen.

Elizako aterpean
atsoak errezatzen,
sakristaua pulpitotik
letaniak kantatzen.

Zazpi agur erreginak
zerurantz bidaltzen,
eta ama birjinari
promes anitz egiten.

Hamaika aitagureak
goiko saildu orori,
hamaika agur mariak
izar beltzaranari.

Aurpegi konkorduneko
serora sorginenak,
ur bedeinkatuz zituen
uxatzen satan denak.

Balehodei batzu pean
hasi zen pelea, bada,
hainbat odol isurtze
kontatzea ezina da!

Arrotzek zioten oihuz
birao mingots, zatarrak,
gudariok deihadarka
gora gu ta gutarrak!

Ipar haizeko txistuak
jotzen zigun hain gogor,
onddo zimaurtuen gisa
ezinik eman amor.

Errotatxoriak bezain
dardartsu ekaitzpean,
hegak bustirikan eta
tristura hegaletan.

Etsaien estandartak
haizeak zeramazkien
ikurrinak, aldiz, tente
beso sendotan zeuden.

Lurrera erortzen ziren
Heriok zauriturik,
odol putzu tartera,
mila oihu jaulgirik.

Han ziren, han, mila oihu,
mila malko eta negar,
han ziren, han, zalapartak
bihotza uzteko lar.

Irrintzina alegerak
apaltzen zihoazen,
aurpegi alai gorristak
tristeziaz goibeltzen.

Artzain semea garaitik
kontatzen hasia zen:
bat, bi, hiru, lau, bost... ene!
zein zaila den kontatzen!

Sei, zazpi, zortzi, bederatzi,
hamar, hamaika, hamabi,
hamahiru ere badira,
odoletan igeri.

Buruek gorputzengandik
zuten ihes egiten,
besoek bizkarretarik
zeharo aldrebesten.

Kukusoz eta zomorroz
beterik zeuden soinak,
zauriz eta odol beltzez
gudari bulardunak.

Hamalau bele krakari
gurdi baten gainean,
eta otso gosetiak
ezur puzkak ahoan.

Eta eguzkia goren
zegoen mementoan,
hilak besterik ez ziren
odolezko itxasoan.

Lur hotzean etzanikan
hautatu zutelako,
bere semeak zitezen
askatasunerako.

Anjelusko kanpai hotsak
sirimiri tristean
erortzen ziren oparo
Dorrejilko bidean...

Hirugarren partea:

KATE HERSTU HAUETARIK...

Ene adiskide onak,
Badizuet esateko
presondegi gaitz honetan
triste garela oro.

Duela egun batzuek
atzerriko hirian,
hamar anaia direla
hilik injustizian.

Injustizizko legean
nituenak burkide,
iudizioaren ezean
hamaika on adiskide.

Goizeko egun argiak
itzala urratzean,
zortzi tiroz hilak dira
eguna argitzean.

Gorputzak gelditu ziren
etzanik lur hotzean,
odol erreka batean,
sendiak negarrean.

Geurok lur eman genien,
geurok zulatutakoan,
hilobi triste apala,
rekiemaren ondoan.

Gizon izateagatik
madarikatu naute,
gainera bota didate,
gainera mila kate.

Oin eta besoak ditut
burniz kateiaturik,
eta bizkar lepoa, berriz,
zur latzez uztarturik.

Gartzelariak ditugu
burreu maltzurgileak,
inoiz ezin dute ase,
kontrako gorrotoak.

Gorotzaz eta xinaurritz
hornituz hemen natza,
gorputza janedan gabe
ezur hutsetan datza.

Bazkariak beti dira
berdinki hain txarrak,
eztarritik pasatzeko
dudala komeriak.

Baraua aste osoan
saldaz dugu egiten,
haragi usairik gabe
oilo saldaz amesten.

Itzal hotza darioten
harri hilunen pean,
eta amaiarik gabeko
neke hainbat luzean.

Harri besterik eztute
ene soek ikusten,
ene begiak daude
poliki indarra galtzen.

Gaugun luzeetan zehar
armiarmen saretan
gorapilozko mihia
lehortzen dut hormetan.

Atzazkalak janak ditut,
baita ere surangilak,
idi orroa entzutean
puntan ditut ileak.

Larrua dadukat zima
aspaldian haginak
Petiri Santxok bezala
ahaztuak sardinak.

Buru errota askotan
bira mila ematen,
pentsatzen eta pentsatzen,
zuhurra ote naizen.

Urrun leku izkutuan
dantzut oilo kukurruka,
harriz harri erreka,
sentipenak, nork uka?

Hain urrun dantzudanean
nekazaria txistuka,
edo emaarrantzaleen
eztarria oihuka,

Urtutzen zaizkit begiak,
joaten zait zentzuna,
amestuz eta amestuz
askatasun eguna.

Ez dut egunik pasatzen
oroitu gabe amaz,
haren besarkada samur
musu etengabeaz.

Eta keinu automataz
babak poliki aletzen
amonatxo sutondoan
erramuz eulik uxatzen.

Kutxa artesituaren
bihotza zahar latzaz,
pipiak erdijandako
margino dotoreaz.

Olazahar baserriko
horma kareatutaz
eta hango astoaren
kexu eta arrantzoaz.

Londreseko artzainaren
sudur oker luzeaz,
eta bere artaldeko
aker adar oker beltzaz.

Lopene zelaian zetzan
ohizko hilarritaz,
goiko eliza kanpaien
brontzezko oihartzunaz,

Sagastiko semearen
sasoi eta indarraz,
Josune neskatilaren
diti eder pareaz.

Gaztarrotzeko gerezi
udare, sagarditaz,
zelai berde ebakitan
zebiltzen zezenetaz.

Haurtzaroko mundu laister
ibilaldi alaiatz,
zoko batetik bestera
ximeletak segiaz.

Bordaxoko kupeletan
aserik sagardoaz,
hainbat dastaturikako
tokako apostuaz.

Dontzeila ikaratien
garrasi kezkatiaz,
inguratzen ginenean
berba bigun dultzeaz.

Haltza eta urki lirain
garo latz serratuaz,
eta ondartzako bagen
zilarrezko afarretaz.

Kresala mingots zerion
kaia bazterretaz,
antxobak eta atunak
zekarkiten ontzitaz.

Uhinen joanetorriak
banaka kontatuaz,
maite minduren heriak
bigunduz olatuaz.

Patxaran kriselu pean
lasai pipa erreaz,
barnea beterik lanbroz
lanbroz eta kresalaz.

Paseo berriko puntan
patxaran kanabelaz,
arrainik bazetorren
betiko esperantzaz.

Baina ni aspaldidanik
gartzela hontan natza,
oihuz madarikaturik
etorkizun hain latza.

Eztugu hemen garenok
beste itxaropenik,
baizik laister heriotzak
gaituela eramanik.

Ttipitan ikasi nuen,
ene lagun maitea,
jaiotze unetik dela
gizon oro librea.

Borroka behar dugula
berdintasunagatik,
tirano gaiztoen aurka
askatasunagatik.

Baina bake sailduaren
aitzaki faltsoaz,
lagunen odol beroak
hoztutzen horra doaz.

Muga legez jarri dute
Bidasoa ibaia,
Hondarrabi ezkerrean
eskuinean Hendaia.

Baldin agorturik badago
gogo maratilua,
ediren du erditasunak
berezko zigilua.

Eskubidetik lehena
bizitzekoa baita,
besteak honi darraizka,
axolagorik ezta.

Bigarren eskubidea
askatasuna duzu,
inongo katearik bada,
onar behar eztuzu.

Hirugarrena, honela,
berdintasuna dugu,
inor besteren izerdiz,
bizitzen lahako eztugu.

Gaztelanuak esan dit
isilik egoteko,
ez didala entzun nahi,
kontuan ukeiteko.

Eta isiltzen ezpanaiz,
segidan berehala,
harrekin jolastutzero
bidaliko nauela.

Dorrejilko burges hori,
urdi zikin beha adi,
korajerik baldin baduk,
niregana jatsi adi.

Ehun urte bizi banaiz,
haut madarikatuko,
herriak ni entzutean,
hau zintzilikatuko.

Hi eta hi bezalakoak
zuhaitzetan zintzilik
sarats guztiak dirate
oso alegraturik.

Haxerien atzaparrak
izango dituk gako,
hire haragi ustelak
jaki butroentzako.

Buru muinak jango dittik
bele hegalariak,
bihotza eta gibela
gabiroi kexatiak.

Ezurrak izango dira
oro zakurrentzako,
banaloriak hausturik,
hego haizearentzako.

Zaldiak dantzudanean
kaiola honetarik,
ametsetan hasten natzaik
odola nariolarik.

Zulo hontako leihoa
jantzi da elur xuriz,
inguruko hariztian
eguzkia da diz-diz.

Eta noizean behinka
abesti oso tristez
kotsolatzen nau pittin bat
xoriñoak nigarrez.

Negu honen ondorean
jarri dut esperantza,
apirilako arrosak
dakarkeela bengantza.

Eta udaberriakin
datorrela librantza,
adiskideekin dudala
egingo mila dantza.

Eta deserriratuen
etxeratze egunean,
ibiliko gara denok,
dastatuz, maitasunean.

Aberats burges guztien
ongiak eta lurrak
pobreen arte zatituz,
bakoitzari bereak.

Denbora berri horretan
Euskal langile dena,
askatasun osoarekin
mintzatuko ahal da.

Herri orotan ordutik,
dirate ukatuak,
bortxazko legeak eta
beltzesklabotasunak.

Hautsiak izango dira
injustizi legeak,
entzungo dira bakarrik
gizon eskubideak.

Denon arte ditugu
egingo legediak,
denok beteko ditugu
gustoz bide berriak.

Basajaunaren hilketa
maitatuz bengatzeko,
eta estetikarena
loreaz ahanzteko.

Oihuka iratzartzeko
lotan datzan herria,
kantuka ibiltzeko
behar dugun bidia.

Arranoaren kexua
fidelki aditurik,
inori ukatu gabe
samin ihitaiarik.

Dialektikaren garraz
usoa mailaturik,
arragoan gorituaz
krabelin altzeirurik.

Ezta izango jokatze
denbora berezirik,
ez eta egun horitan
txantxetan ibiltzerik.

Nire mindurak eztu
esateko tamainik,
baina entseiatuko naiz
esatera oraindik.

Nagusiak omen dira,
zetzudun eta jator,
baina pobrearentzat
ditugu bihotz gogor.

Hainbeste ohore eta
hainbeste on bertute,
hala ere guretzat
esku xit labur dute:

Nagusi on eta jatorrik
ez dagoela, ez, entzun,
guretzat kalte besterik
ez dakarte horiek egun.

Horregatik gauza hauek
ez ditut pairatuko,
iraultza egunean
ditugu aldatuko.

Eta azkeneko orduan,
mementoa iristean,
oroituko natzaizue
arnasa loditzean.

Ondartzaren urepelak
ditudala sentitzen,
ametsetan banoakizue
memoriak garbitzen.

Erresuma anitzetan
aspaldian nabila,
amodioaren xerkan
laztan gozoen bila.

Pairatzen ditudalarik
krudelkeria mila,
ifernuko su guztiak,
ezpainintzen abila.

Ehiztaria bezala
munduko oihanean,
animalien gisara,
zauri bat bihotzean.

Arrantzaleen modura
amuak dotoretzen,
apastara inguratuz,
saretan sartzen ziren.

Zuri eta beltzaranak
urre zilar ziruditen,
baina denbora pasata
azkenik hauts zegiten.

Ihintzez beterikako
goiz argi nabarretan,
eta lorez estalitako
belardi berdeetan,

Besarka nahi nituen
amodiozko baratzetan,
belardi paregabetan
hamaika musuetan,

Altzeiruzko taupadak
bihotzean entzutean,
desiozko grin bortitzez
odola ernetzean.

Zuhaitzetako hostoak
erortzen zirenean,
eta ahateen musika
entzuten zen artean.

Laztantzen nituelarik
gerizpe bularretan,
eta suzko mihinez
suzko ezpain gorritan

Ispilu erdoituetan
zilipurdikaturik,
ganbara infinitoetan
amodioztaturik.

Mendietako elurrak
urtzen ziren artean,
desertuko krabelinak
zirauten bitartean,

Esperantzak galdu gabe
ezerezaren pean,
matematika hotzaren
lumero babesean.

Baina hainbat arantzazko
sentipenak akituz,
planeten bideetarik
nindoan abiatuz.

Irudimen zoroari
idekitako leihoak,
itsaso muga gabeko
haizeari hegoak,

Alferrikako zirela
laister ohartu nintzen,
denbora alferrik galdu
inolaz ezina zen.

Goizean goiz jeiki eta
lanera joan beharra,
besteen lurrak jorratuta
esku hutsik etxera.

Nire baserri maitetik
hurrundu nintzenean,
ez nuen, zoro, pentsatzen,
baizik zorionean.

Xoriñoak bezalatsu,
libro biziko ginela,
baina zorigaitzean,
preso gautza honela.

Halere, lagun minenak
ez naute, ez, ahantzi,
nuen ene esperantza,
ez zait, ez, itzali.

Baina xit haserre nabil,
orain bildurtiekin,
haserre, oso haserre,
kakontzi direnekin.

Geure zainetan eztugu
arbasoen odolik,
egia ote da, bada,
eztugula indarririk?

Besoetan ekaitzaren
indar izugarria,
begietan ximisten
xinpart bildugarria.

Besteen begi ederrak
zorutzen baitigute,
mendetan aske ginenok
gatibatu gaituzte.

Baina askatuko gaitu
hilunpe honetarik,
dialektikaren suak
lainu beltzak hautsirik.

Elurra, kea, odola,
ikara ahazturik,
gaitza egileen aurka
adimenak baturik.

Sorginak leize zulotik
irrintziz irtetzean,
hitz majiko estrainoak
luze deihadartzean.

Sugetxarraren ahotik
ihesi egitean,
eta lami lapurtien
sorteak uxatzean.

Nigarrez udaberrian
arropak legortzean,
nolanahi hil ondoren
arima berdetzean.

Antzinako ohoreak
bukatzen direnean,
belaun eskubide denak
betiko deuseztean.

Eta orduan herria,
ene herri maitea!
ikusiko dut berriro
pozez, halafedea!

Fabrikaz kiskalia den
ene herri maitea,
hizkuntza arrotzek duten
inguratzen jendea.

Herri erre eroria,
orduan da altxako,
herri inri pozoindua
askatasunerako.

Olako burdinetan
nahi nuke nik egon,
burkideen artean
mespretsu gabe inon.

Aspaldiko egarriak
arno beltzez aserik,
zauri eta ezur hauk
indarrez osaturik.

Lantegiko lagunekin
eginaz batasuna,
herriari emateko
bere askatasuna.

Langile menperatuak
firmoki oldarturik,
jauntxoen gainbalioak
betirako kendurik.

Gogorra izango da, bai,
poeta gezurtia,
orduan, bai, hiretzako,
egunaren argia.

Paradisuko atea
izango duk hertsirik,
hiretzat ifernukoak
dirate idekirik.

Egun airatu hartan
jabeak iuiaturik,
izango dira gogorki,
pobreak amuruski.

Judizio egunean
non dirate nobleak,
markes, zaldun, duke, konde,
hemengo erregeak?

Jurista eta teologo,
poeta doktoriak,
hainbeste urre duten
nagusi bankariak?

Eta eliza sailduko
apez, kardenaliak,
hainbeste ohore duten
gotzain, prelatiak?

Judizioa izango da
denentzat xit gogorra,
justizia egingo da
ororentzat bakarra.

Bizitza ezin daiteke
bada, txantxetan hartu,
seriotasun handia,
behar baita eskatu.

Sofritzen ari direnen
denengatik kezkatu,
hainbeste injustizien
kontra bortitz oldartu.

Hain gaizki diren legeak
ankazgora aldatu,
organizazio onaz
serio arduratu.

Trubleziak ahantzirik
egunoro pelean,
goazen gazteok aurrera,
askatasun borrokan

Kateak ez beste bada,
baitugu guk galtzeko,
mundu berri bat daukagu
gu geuk irabazteko.

Ezpaitigute emango
odol isurtze gabe
legez eskatzen duguna,
ezpaikara gu jabe.

Egunoroko bizitzan
handitzen dugularik
batasun kontzientzia
irteteko kateetik.

Ez, bada, gal, adiskide,
fede esperantzarik,
ez eta zure zainetan
euskal odol berorik.

Zeren eztugu guk nahi
izan inork mirabe,
baizik geuk ipini geuren
oinarri eta habe.

Eztugu sofritu nahi
gugan sasi jaunarik
dizkigutenak ezartzen
sasi eskubiderik.

GORA DEZAGUN LAGUNOK
BETI EUSKAL HERRIA,
IZAN DADILA DENONTZAT
ASKATASUN HARRIA.

1976ko Abuztuaren 31n

AURKIBIDEA

Garrasi itoa.....	3
Ametza	11
Kate herstu hauetarik.....	23